

**Igor Ortega ikertzailea eta Mondragon Unibertsitateko doktorea,
ARIZMENDIARRIETAREN EGUNEAN**

Joan den azaroaren 29an 45 urte bete ziren Jose Maria Arizmendiarieta jauna hil zela, eta, efemeride horren harira, azaroaren 25ean, ARIZMENDIARRIETAREN EGUNA ospatu genuen, "Kooperatibismoaren sortzaileek pentsamendu kooperatiboari egindako ekarpena" izeneko ponentziarekin, Igor Ortegak izen horrekin egindako doktore tesian oinarrituta.

Igorrek bere doktorego tesia prestatzera eraman zuten helburu pertsonalak eta gabezia zientifikoak esplikatuz hasi zuen hitzaldia, eta erabili dituen metodologia eta iturriak azaldu zituen.

Ondoren, mugimendu kooperatiboaren jatorrian, garapenean eta eztabaida doktrinal nagusietan sakondu zuen, bereziki aipatuz XVIII. mendean, industria iraultzarekin, gertatu zen eraldaketa handia, urte haietan langile klaseen praktika asoziatiboak, sozialista asoziazionistak eta Buchezen ekarpena.

Aurrerago, kooperatibismo modernoaren sorreraz aritu zen, Rochadleko aitzindarien agerraldiarekin (1844): haien printzipioak, kredituko kooperatibismoaren hastapenak, kooperatibismoaren fase modernoa, Arrasateko kooperatibismoaren sorrerako testuingurua eta lan elkartuko kooperatiben eztabaida.

Eta, amaitzeko, Mondragonen fundatzaileen kontzepzioa azaldu zuen, eta kooperatibek lan elkarturantz egindako prozesu luzea erakutsi zigun, Arrasateko kooperatibismoaren irismen eraldatzailea, eraldatzeko ahalmen mugatuaren inguruko kritikei emandako erantzuna eta lan elkartuko kooperatiben bideragarritasunerako faktoreak.

Eta, bere ponentziari amaiera emateko eta ondorio gisa, Igor Ortegak esan zuen Arrasateko kooperatibismoaren sortzaileek ekarpen hauek egin zituztela:

1.- Pentsamendu kooperatiboari ekarpena egin diote, batetik, laneko kooperatibismoaren dimentsio eraldatzailea indartzen duten dispositibo berriak formulatuz, eta, bestetik, irabaziari buruzko oinarri doktrinala garatzen duten kontzeptualizazio berriak sartuz.

2.- Lanari eta Pertsonari buruzko kontzepzioaren bidez, eredu kooperatiboaren perspektiba berriak ireki zituzten, lanaren esparrua norbera sustatzeko eta osatzeko espazio moduan planteatuz, printzipio horietan oinarrituta, eta lan elkartuko kooperatiben bideragarritasuna erakutsiz, izan ere, lagundu egin zuten kooperatibismoa eta 1960ko amaieran indartsu agertu zen enpresa eta ekonomia humanizatzeko nahia bateratzen.

3.- Formula kooperatiboak ekonomiako sektore guztietara heltzeko zuen gaitasunari buruzko zalantzak uxatu zituzten, eta, bide batez, proiektu kooperatibo eraldatzailearen garapenari ikuspegi berriak ireki zizkieten.

4.- Kooperatiben eta komunitatearen arteko sinergiaren adibide arrakastatsuak ematen duen indarrarekin, haiek sortutako eredua, alderdi praktikotik zein kontzeptualetik, kooperatibismoa eskaintzen dituen aukeren kasu arrakastatsua eta bereziki inspiratzailea izan da, komunitateen garapen ekonomikoari eta sozialari begira.

5.- Printzipio Kooperatiboaren interpretazioa lan elkartuko industria kooperatibek duten espezifikotasunera egokitzeko beharra agerian jarri zuten.

6.- Eta, lan elkartuko industria kooperatiben garapen arrakastatsurako oinarriak ezartzeaz gain, oinarri horiek paradigma kooperatiboaren printzipioen eta balioen hedapenean oinarritzen zirela ere frogatu zuten. Beren kontzepzio kooperatiboan, balio eta printzipio kooperatiboek, enpresa kooperatiboaren asmo eraldatzaileak gorpuzteaz gain, lan elkartuko industria kooperatiben eraginkortasunaren eta bideragarritasunaren funtsezko zutabea osatzen dute.